

6. gidoia: Itzalak korridorean

Gidoiaren laburpena

"Itzalak korridorean" narratibak eskola-jazarpenari heltzen dio, biktimaren, erasotzaileen eta behatzaileen ikuspegitik. Eszena interaktibo batzuen bidez, ikasleek jazarpenaren alertaren seinaleak, zergatiak eta ondorioak aztertuko dituzte, baita jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko estrategiak ere. Istorioak Izarra artefaktua erabiliko du jazarpenaren ezkutuko dinamikak ezagutarazteko, eta hezkuntza-komunitatearen enpatia eta konpromisoa sustatuko ditu arazoa konpontzeko.

Helburu pedagogikoa

Narratiba honen helburu pedagogikoa ikasleak eskola-jazarpenari buruz sentsibilizatzea da, jazarpen hori identifikatzeko, ulertzeko eta haren aurka jarduteko tresnak eskainiz. Interakzioaren bidez, enpatia, errespetua eta erantzukizun kolektiboa sustatzen dira, eta jazarpen-seinaleak ezagutzen, biktimei laguntzen eta hezkuntza-komunitatearekin elkarlanean arituz ingurune seguru eta inklusiboa sortzen erakusten zaie ikasleei.

Eszenen taula

| Eszena | Deskribapena | Elkarrizketak |
|--------|---|---|
| E00 | Kuadrilla hitz egiten ari da atarian. Tontakeria batengatik, haserretu egiten da Ainara, eta gainerakoek | Eloi: Zer moduz atera zaizue geografiako azterketa? Andoni: Erdipurdi; Aizkorri eta Aralar nahasi ditudala uste dut. |

| | | |
|-----|--|--|
| | <p>komentatzen dute oso arraroa dabilela azkenaldian.</p> | <p>Ainara: Ez dakit... Galdera batzuetan, zer erantzun ez nekiela geratu naiz.</p> <p>Naroa: Zer erantzun ez zenekiela? Baina zu ikaslerik onenetako bat zara-eta! Ez izan hain apala.</p> <p>Ainara [HASERRE]: Zer gertatzen da? Ezin zait azterketa bat gaizki atera, ala? Dena bikain egin behar dut?</p> <p>[Ainara joan egiten da]</p> <p>Naroa: Muturtuta joan da... Zer gertatzen zaio azkenaldian? Behin eta berriro haserretzen da.</p> <p>Andoni: Egun "horietako" bat izango du.</p> <p>[Naroak eta Goranek begirada zorrotzak zuzentzen dizkiote. Zati hau mikromatxismoaren erakusgarri bat da, baina aukerako moduan ipintzen dut, beharbada ez baita horretarako unea]</p> <p>Eloi: Niri esan dit duela aste batzuk buruko minez dagoela. Arraro samar ikusten dut, triste egongo balitz bezala. Gainera, azken lanetan ohi baino nota baxuagoak atera ditu.</p> <p>Gorane: Gero berarekin hitz egiten saiatuko naiz; ea zerbait esaten didan.</p> |
| E01 | <p>360 panoramika jolastokian. Kuadrillaren elkarrizketa bat sartzen da, tratu txarren gaiaz susmoa pizten digun</p> | <p>Gorane: Ainararen bila nabil, baina ez dut topatzen. Ikusi al duzue?</p> <p>Andoni: Bai zera! Biologia-eskola geneukan eta ez da agertu.</p> <p>Eloi: Ainara piper egiten? Hori bai dela arraroa!</p> |

testuinguruari bidea eginez. Ainaratu txarrak ematen dizkiotenekin dago, larderiazko testuinguru batean. Inguruan ikasleak egon daitezke, jokabide hauekin: 1) Barrez 2) Egoera ikusten, baina ezer egin gabe. Alde errealean, zerbait gertatzen dela susmarazten digun informazioa ematen zaigu, baina darksiden erasoaren eragileei buruzko informazioa ematen zaigu, eta erasoan nola parte hartu duten zehazten da (BIKTIMA, ERASOTZAILEA, LEKUKOAK). Eszenaren amaieran, kuadrilla Ainararekin hizketan ikusten da, non Ainarak iraganeko erasoak onartzen dituen eta kasua zuzendariaren aurrean salatzeaz hitz egiten duten.

Narrea: Begira! Han dago, Unairekin!

Eloi: Unairekin? Bai bitxia. Izan ere, Unai ez du batere gogoko!

Gorane: Zerbait gertatzen ari dela uste dut... Izar dir-dir egiten ari da!

[360 PANORAMIKARA PASATZEN GARA]

Ainara: Unai, ez izan astuna!

Unai: Neska, txantxetan ari naiz!

[Taldea barrez]

Hor dabil Unai, berriro adarra jotzen!
 Aurpegi ederra jartzen ari da neska, kar-kar-kar-kar!

[Taldea uko egiten]

Berriz ere Ainarari adarra jotzen al dabil Unai?
 Txantxetan ibiliko da, beti bezala.

[Taldea gaitzesten]

Zergatik ez du Unai Ainararekin bakean uzten?
 Zerbait esan beharko genioke! Pasatzen ari da!

[Darkside]

Ainara: Korridoreetan bultza egiten dit, ikasgelan apunteak lurrera botatzen dizkit, arkatzak apurtu egiten dizkit... Zergatik ez nau bakean uzten? Ezin dut gehiago!

| | | |
|-----|--|--|
| | | <p>Unai: Tuntun honek inor baino azkarragoa dela uste du. Orain ikusiko du nor naizen!</p> <p>[Taldea barrez]</p> <p>Txantxa bat jasateko gai ez bada, berea da errua, hain samindua izateagatik.</p> <p>Unai egundokoa da; hor konpon bere txantxak jasaten ez dituen.</p> <p>[Taldea uko egiten]</p> <p>Ainara azkar ustekoa da; merezi du.</p> <p>Ainarak ez daki txantxa bat ere jasaten; hantuste hutsa da.</p> |
| E02 | <p>Kuadrillak erasoari buruz hitz egiten du eta zuzendariarengana joatea erabakitzen du. Hurrengo eszena: ikasgela, eskola-aholkulariarekin.</p> | <p>Narao: Zergatik ez zenigun esan Unai eraso egiten ari zitzazula?</p> <p>Ainara: Ez nuen uste hainbesterako zenik, eta bakean utziko ninduela pentsatzen nuen. Beldur nintzen salatuz gero zerbait egingo ote zidan.</p> <p>Andoni: Horrelako kasuetan, okerragoa da isilik egotea. Goazen irakasleei esatera, zer neurri hartu behar diren jakiteko.</p> <p>[Eskola-aholkulariaren eszenara aldatzen gara]</p> <p>Eloi (OFF): Eskola-aholkulariaren hitzaldi baterako deia egin digute.</p> <p>Aholkularia: Laiene naiz, eskola-aholkularia, eta duela gutxi zuen ikaskide bati jazarpena egin diotela salatu dutelako gaude hemen. Zer egin daiteke horrelako kasuren bat gertatuz gero?</p> |

| | | |
|-----|---|---|
| | | <p>Ikastetxean eta etxean neurriak hartu daitezke, baina zuek ere zerbait egin dezakezue halako egoerak saihesteko. Neurri batzuk azalduko dizkizuet, guztion artean eztabaidatu ahal izan ditzagun.</p> <p>ZERRENDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakasle nahiz aholkulari bati edo zuzendariari gertaerari buruzko informazioa eman. - Kaltetutako pertsonari lagun egin, bakarrik egon ez dadin. - Jazarpen-egoerak behatuko eta jakinaraziko dituen talde bat sortu. - Errespetua eta inklusioa sustatzen dituzten kanpainak sortzen parte hartu. - Eskola-agintariekin elkarlanean aritu, jazarpenaren aurkako protokoloa garatzeko edo hobetzeko. - Jazarpenaren biktimei laguntzeko taldeekin bat egin edo halako taldeak sortu. - Jazarpenaren ondorioei buruzko hitzaldiak jaso. - Jazarpen-egoera bat gertatzen ari denean, geldiarazteko esku hartu, betiere segurua bada. |
| E03 | Entzunaretoa, zuzendaria ikastetxeak eskola-jazarpena saihesteko hartuko dituen neurriak azaltzen ari dela. | <p>Naroa: Atzo aholkulariarekin izan ginen, eta gaur zuzendariak jazarpen-kasuak saihesteko martxan jarriko dituzten neurri batzuk azalduko dizkigu.</p> |

| | | |
|-----|---|--|
| | | <p>Zuzendaria: Kaixo denoi! Jazarpen-kasuak prebenitzeko, hainbat neurri aurkeztuko ditu ikastetxeak. Ikastetxearen webgunean neurri-zerrenda bat aurkeztu dugu. Bozkatu haietatik lau, ekimenari bide emateko.</p> <p>[ZERRENDA]</p> <p>BOZKATU ESKOLA-JAZARPENAREN AURKAKO NEURRIAK (Lau aukeratu)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza sozioemozionaleko programak garatzea. - Jazarpena identifikatzeari eta prebenitzeari buruzko tailerrak antolatzea gurasoentzat eta irakasleentzat. - Eskola-jazarpen kasuetan esku hartzeko protokolo argiak ezartzea. - Ikasleen artean bitartekaritza-espazio seguruak ezartzea. - Salaketak modu anonimoan komunikatu ahal izateko sistemak sortzea. - Eremu komunak (jolastokiak, jangelak, korridoreak) behar bezala gainbegiratzea. - Eskola-gaietan errespetuari eta aniztasunari buruzko edukiak sartzea. - Ikastetxean aholkulariak edo psikologoak sartzea. |
| E04 | Zuzendariaren bulegoa Ainararen gurasoekin. | Ainara [OFF]: Zuzendariak nire gurasoei deitu die, haiekin hitz egiteko. |

| | | |
|-----|-----------------|--|
| | | <p>Zuzendaria: Gertatu berri den jazarpen-kasua bezalakoetan, ikastetxeak protokolo batzuk jarriko ditu martxan, gehiago gerta ez daitezen. Halaber, hitzaldi bat eman zaie ikasleei, nola jokatu jakin dezaten. Azkenik, gurasoekin hitz egingo dut, etxean ezar ditzaketen neurri batzuk proposatzeko.</p> <p>[ZERRENDA]</p> <p>Etxean komunikazio irekia eta konfiantzazko giroa sustatu.</p> <p>Errespetu-, enpatia- eta tolerantzia-balioetan hezi.</p> <p>Sare sozialen eta plataforma digitalen erabilera gainbegiratu.</p> <p>Haurraren eskola-bizitzan aktiboki parte hartu, bilera eta ekitaldietara joanez.</p> <p>Irakasleekin aldian-aldian komunikatu.</p> <p>Muga eta ondorio argiak ezarri portaera desegokiei.</p> <p>Autoestimua eta trebetasun sozialak indartzen dituzten jarduerak sustatu.</p> <p>Gatazkak konpontzeko eta asertibotasunerako trebetasunak irakatsi.</p> <p>Haurraren portaera-aldaketei arreta eskaini.</p> <p>Harreman osasungarri eta positiboak sustatu, seme-alaben lagunak eta haien familiak ezagutzuz.</p> |
| E05 | Ainararen bloga | <p>Eloi: Ainarak sarrera bat argitaratu du eskola-blogean, bere jazarpen-kasuari buruz hitz eginez, eta laguntza handia jasotzen ari da. Bestalde, ikastetxea, ikasleak eta gurasoak neurriak ezartzen ari dira, kasu gehiago gertatzea saihesteko.</p> <p>Ainararen bloga:</p> <p>EZ GAUDE BAKARRIK.</p> |

Askok jakingo duzueenez, duela gutxi jazarpena jasaten aritu nintzen ikastetxean: iseka egiten zidaten, eta, batzuetan, eraso fisikoa ere bai. Egoera iragankorra izango zelakoan, isiltzea erabaki nuen, baina ez nuen erabaki egokia hartu. Egoera okertu egin zen, eta nik uste baino gehiago eragin zidan. Zorionez, hurbileko jendeak laguntza eman zidan beharra izan nuenean, eta horrek nire egoera kontatzeko adorea eman zidan.

Badakit beste ikaskide batzuk nire egoeran egon direla edo egon daitezkeela. Eta nik hauxe esan nahi dizuet: ez zaitetze isilik geratu, ez zaitetze bakartu; bilatu laguntza.

Ez gaude bakarrik.

Ikasleen erreakzioak:

Leire: Indarra opa dizut, Ainara. Oso ausarta zara zure historia gurekin partekatzeagatik.

Eneko: Kemen handia behar da egin duzuna egiteko. Animo!

Miren: Zurekin eta jazarpena jasaten duten guztiekin gaude. Animo eta aurrera!

Mikel: Jazarlerik ez gure ikastetxean.

Gorka: Guztiok adi ibiliko gara, antzekorik berriro ez gerta ez dadin. Animo, Ainara!

Iker: Eskerrik asko kontatzeagatik, Ainara. Zure historiak lagundu digu hobeto ulertzen ikaskideei laguntzea zein garrantzitsua den.

Ane: Zein ausarta zaren, Ainara! Hemen gaude behar bagaituzu. Gure ikastetxean jazarpen gehiagorik ez.

Jon: Denok elkarrekin, aldatu egin ditzakegu gauzak. Jazarpen gehiagorik ez gure ikastetxean!

Maite: Zurekin nago, Ainara. Gure ikastetxea guztiontzat leku segurua izatea lortuko dugu.

| | | |
|--|--|--|
| | | Ander: Eskerrik asko zeure barrua irekitzeagatik, Ainara. Zure esperientziak kontzienteagoak eta enpatikoagoak izaten lagundu digu. |
|--|--|--|